

# Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako I. Plana 2010-2013

hezkuntza

Bergarako Udala

# egungo egoera



**Ikasketak aukeratzea:**
Hezkuntza arautuak derrigorrezko izateari uzten dionean, sexuen ordura arteko oreka apurtu egiten da. Lan-mundura bideratutako ikasketen aukeraketan eragina dauka lan-munduan sexu bakoitzari ematen zaion lekuak eta sexu bakoitzari lotzen zaizkion ezaugarriak. Lanbide Heziketa horren adierazlea da: 2010-11 ikasturtearen Bergarako datuen arabera, gizonezkoak ari dira, batez ere, Mekanizatuan eta Mekanizazio bidezko produkzioan, Ekipo elektrikoen instalazioetan, Proiektu mekanikoen garapena, erregulazio eta kontrol sistema automatikoen zikloak egiten. Ziklo hauetan, 160 ikasletik 16 besterik ez dira emakumezkoak (10 lagunetik bakarra). Beste ziklo batzuetan, berriz, Gizarte-integrazioan, Haur Hezkuntzan eta administrazioa/finantzan emakumezkoak dira gehienak; 165 ikasletik gizonezkoak 23 dira (10 lagunetik 2 inguru).

**Hezkidetza:**
Ikastetxeak hezkidetza bultzatzen saiatzen diren arren, beste eremuetan bezala (familian, kalean...), askotan, sexu-genero bakoitzari dagozkion rolen eta estereotipoen arabera jokatzen da, balore sexistak transmitituz.

**Hezitzaileak eta gurasoak haurren eredu:**
Haurren heziketa eta zaintza-lanak emakumezkoekin lotzen dituzte haurrek txikitatik. Izan ere, besteak beste, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, irakasle gehienak emakumezkoak dira eta gurasoen kasuan, inplikazio-maila desberdina erakutsi ohi dute sexuaren arabera. Haurren heziketaren ardura amek hartu ohi dute bereziki eta aita gehienak bigarren mailan geratu ohi dira.

**Jolasak eta aisialdiko ekintzak:**
Haurren artean, desberdintasunak antzematen dira jolasak edo aisialdiko ekintzak aukeratzerakoan. Mutilak, «mutilen jolas» gisa aurkezten zaizkigun

jolasetan aritzen dira nagusiki (baloiaren inguruan, batez ere) eta neskak, berriz, «nesken jolas» gisa aukezten direnetan. Egon badaude bereizketa hau jarraitzen ez duten neska-mutilak, baina normalean askotan bazterketa eta mespretxua jasan behar izaten dute; besteak beste, futbolean aritzen ez den mutilak sozializatzeko arazoak izan ohi ditu.

Neskak sozializatuta daude ez esploratzera, leku ezagunetan gelditzera, "kontuz, ez irten horra" esaten zaie; mutiletan, berriz, normaltzat hartzen da espazio zabalean korrika ikustea, mugitzea.

**Espazioen erabilera:**
Ia eskola denetan espazio gehien hartzen dutenak futbol zelaia eta baloiarekin aritzeko jolasak dira eta espazio hori mutilek betetzen dute. Kontua ez da espaziora mugatzen, jolasei ematen zaien garrantzia eta botere sinbolikoa ere hor dago, esaterako gure gizartean futbolak garrantzi handia du, eta aktibitate hori mutilek egin ohi dute. Neskek, berriz, espazio gutxiago hartu ohi dute, eta askotan espazio horiek ez dute identitaterik: muga zehatzik gabeko eta izenik gabeko lekuetan jolasten dute (bazterretan, eskaileratan, korridoreetan...). Euren jolasak ere ez dira jolas bezala ikusten: neskak hor "daude", edo "euren gauzetan ari dira", baina ez zaie identitate bat ematen, badirudi ez direla ezertan ari.



# gure asmoa

• Hezkuntza formalean zein ez formalean hezkidetza bultzatuko da.
• Baliabideak sortuko dira gurasoek eta herriko hezitzaileek hezkidetza praktikan jar dezaten, besteak beste, jolas ez sexisten tailerrak, ipuin ez sexisten informazioa eta hitzaldiak.
• Emakumezkoen edo gizonezkoen jarduera gisa aurkezten diren arloetan, estereotipoak gainditzeko ekimenak egingo dira bestelako eredu eta erreferentziak sortzeko.
• Aitak eskoletara hurbiltzeko estrategiak landuko dira.
• Hezkuntza formalean zein ez formalean emakumezkoenganako indarkeria prebenitzeko programak garatuko dira.

# Hezkidetza. Zer da?

**HEZKIDETZAK,** pertsonaren garapen integrala helburu hartuta, pertsonak bere banakotasuna eta berezitasuna kontuan hartuta heztea esan nahi du. Irizpide sexistak jarraitu gabe, gizon eta emakumeei egokitutako rolak, balioak, portaerak eta abarrak gaindituz heztean datza. Azken finean, neskentzat nahiz mutilentzat baliagarria izango den pertsona eredua bultzatzea bilatzen du, estereotipo edo eredu femenino eta maskulinoak alde batera utzita.

Pertsonarentzat gaitasun positiboak direnak lantzen ditu, kontuan hartuta batzuk gaitasun batzuetan entrenatuagoak daudela sexu batekoak izateagatik, eta beste batzuetan herren dabiltzala. Generoak eta bere mugak gainditzeko bideak zabaltzen ditu.

Hezkidetza ezin da ikasgai moduan landu, beraz. Aitzitik, ikasgai guztiak busti behar ditu, hezkuntzako jardun guztia lurrindu. Horregatik, neska-mutilak ikasgela berean elkartze hutsa ez da hezkidetza.

# Coeducación. ¿Qué es?

**La COEDUCACIÓN** tiene como objetivo el desarrollo integral de la persona y busca educar teniendo en cuenta la individualidad y particularidad de la persona. Consciente de las características ligadas a cada género, trata de superar esa diferencia. Consiste en educar obviando cualquier criterio sexista y superando los roles, valores, conductas, etc. conferidos independientemente a los hombres y a las mujeres. Pretende fomentar el modelo de persona que resulte útil tanto para niños como para niñas, dejando a un lado los estereotipos o modelos femeninos y masculinos.

En definitiva, la coeducación trata de abrir caminos con el fin de superar las diferencias de género y los límites establecidos al respecto.

Por lo tanto, la coeducación no consiste en reunir niños y niñas en una misma aula, ni tampoco se puede contemplar como una asignatura. Al contrario, debería estar presente en todas las asignaturas e impregnar toda la actividad educativa.

pero por lo general a menudo sufren exclusión y desprecio; entre otros aspectos, los niños que no juegan al balón suelen tener dificultades para socializarse.

Las niñas están socializadas a no explorar, a permanecer en lugares conocidos, mientras que los niños lo hacen en espacios abiertos, en movimiento.

**Uso de los espacios:**
En todas las escuelas el campo de fútbol y los lugares destinados a actividades relacionadas con el balón llenan el mayor espacio, y generalmente los niños ocupan dichos espacios. No obstante, la cuestión no se limita al espacio, sino que también entra en juego la importancia y valor que se le da a cada actividad. Así vemos que el fútbol es considerado un deporte muy importante en nuestra sociedad y habitualmente practican los niños. Las niñas, en cambio, normalmente abarcan menos espacio y a menudo esos espacios carecen de identidad: juegan en lugares que no están propiamente delimitados, ni se les ha otorgado un nombre (como por ejemplo, en rincones, escaleras, pasillos...). Los juegos que practican las niñas tampoco se consideran exactamente juegos: las niñas están "ahí" o "están en sus cosas", pero no se les concede una identidad a estas actividades, parece que no están haciendo nada. Por tanto, la importancia y el poder simbólico de esos juegos también es diferente.

# nuestros propósitos



- Fomentar la coeducación en la educación formal e informal.
- Impulsar actividades a favor de la coeducación, coordinadas por el Ayuntamiento y dirigidas a padres y madres, así como a educadores locales (educadores de ludotecas y colonias de verano).
- En ámbitos que se presentan como actividades de hombres o mujeres, se desarrollarán iniciativas con el objetivo de superar los estereotipos y de este modo, crear otros modelos y referencias.
- Se diseñarán estrategias para acercar a los padres a las escuelas.
- Se impulsará la participación en programas de prevención de la violencia hacia las mujeres en la educación formal e informal, coordinando varias iniciativas.

# situación actual



**Elección de estudios:**
Cuando la educación reglada no es obligatoria, desaparece el equilibrio entre sexos mantenido hasta entonces. Los contextos laborales que se relacionan con cada sexo, así como las características que se le asignan a cada sexo inciden en la elección de los estudios dirigidos al mundo laboral. La formación profesional es un claro ejemplo de ello: Según los datos del curso 2010-2011 en Bergara, en los ciclos formativos tales como mecanizado, producción por mecanizado, equipos e instalaciones electrotécnicas, desarrollo de proyectos mecánicos y sistemas de regulación y control automáticos predominan los hombres: solamente 16 de 160 estudiantes son mujeres (una alumna por cada 10 personas matriculadas). Mientras que en integración social, educación infantil, y administración y finanzas, la mayoría son mujeres; 23 de 165 estudiantes son hombres (2 alumnos por cada 10 personas matriculadas).

**Coeducación:**
Los centros de enseñanza se esfuerzan por fomentar la coeducación, pero al igual que ocurre en otros ámbitos (en la familia, en la calle, etc.) con frecuencia se actúa en base a una serie de roles y estereotipos correspondientes a cada género y, por consiguiente, se transmiten valores sexistas.

**Educadores, padres y madres modelos para los y las niñas:**
El cuidado y la educación de los hijos e hijas se plantean ante los ojos de las y los pequeños como una obligación que corresponde a las mujeres. En educación Infantil, Primaria y Secundaria, por ejemplo, la gran mayoría del personal docente son mujeres. Los padres y madres, por otra parte, muestran un nivel de implicación diferente según el sexo. Las madres generalmente asumen la educación de los hijos e hijas y, quedando la mayoría de los padres en un segundo plano.

**Juegos y actividades de tiempo libre:**
Entre los y las niñas se observan diferencias a la hora de elegir los juegos o las actividades practicadas durante el tiempo libre. Los niños principalmente prefieren jugar a juegos que se presentan como «juegos de chicos» (especialmente actividades relacionados con el balón) y las niñas, en cambio, practican actividades conocidas como «juegos de chicas». En realidad, sí hay niños y niñas que no siguen estos patrones,



educación

# I. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2010-2013

Bergarako Udala